

KOSTUEN EGITURA

Hau izango da gure kostuen egitura:

Hasiera batean gure negozioa aurrera eramateko hasierako inbertsio bat egingo dugu 40.000 eurokoa izango dena eta diru honekin hasierako makinak, pantailak, labeak etab. ordainduko ditugu.

Gainera kostu finkoak zein aldakorrak ditugu:

Finkoei dagokienez, hilabetero soldatak (1500 euro langile bakoitzeko, lau izanik, 6000 euroko soldatak) eta alokairua (aurreikusita 1000 euro inguru) ordaindu beharko dugu. Eta hilabetero jasotako maileguaren kuota ordaindu beharko dioagu bankuari.

Beste alde batetik, kostu aldakorrak ditugu. Hasierako 40.000tik, 1.500 euro inbertituko ditugu lehengaiak erosi ahal izateko. Baita argia eta ura ere ordaindu beharko dugu eta kalkulatu dugu 1731,46 argian eta 432,87 uran ordaindu beharko ditugula.